

# Nola ulertu komunikazioa haurrekin parte hartzea sustatzerakoan?

*“Elkarrizketa A eta Bren arteko harreman horizontala da. Matrize kritiko batetik jaio eta kritikotasuna sortzen du. Elkarrizketaren bi poloak horrela lotzen direnean, maitasunarekin, itxaropenarekin, elkarkarrengan fede sentimenduekin, zerbaiten komunaren bilaketan kritiko bihurtzen dira. Eta orduan, komunikazioa bakarrik dago. Elkarrizketak soilik komunikatzen du.”*

Paulo Freire

Komunikazioaren kontzeptua ulertzeko bi modu daude egun:

1. Komunikazioa informatzera, informazioa transmititzera mugatzen duen ideia
2. Komunikatzea elkarrizketa, trukean, partekatzean, harreman horizontaletan oinarritzen duen ideia.

Haurrekin parte hartzea sustatzerakoan, komunikazioaren bigarren ikuskera hau hartuko dugu oinarri.

Are gehiago, komunikazioan gehienetan agertzen den igorle-hartzaile eredu zalantzan jartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Eredu honetan, igorleak daukalako mezua, hitza, komunikatzeko gaitasuna, boterea. Hartzaileak aldiz, jaso besterik ezin du egin, ez dauka inolako botererik komunikazio harreman horretan. Hau heldu/haurren arteko harremanetara ekarriz gero, kasurik gehienetan, igorleak helduok izan ohi gara eta haurrak hartzaileak. Komunikazioa eredu honek beraz, helduzentrismoa sustatu eta iraunaraziko luke.

Honen orddez, Komunikazio demokratikoa, horizontala eta interaktiboaren eredu erabiltzea proposatzen dugu. Hautatzen dugun komunikazio ereduak inguratzen gaituzten pertsona eta kolektiboekiko daukagun posizio politikoarekin zerikusia daukalako. Gure entzuteko nahiari, bestea ikusteko moduari eta bestearekin boterea partekatzera erreferentzia egiten diolako..

Komunikazioaren zentzu original hau erreperatzea, polemika semantiko soil bat baino haratago doan erabakia da. Giza aldarrikapen bat baitakar: orain arte hitza aitortu ez zaien edota zapalduak izan

diren sektoreen komunikatzeko aldarrikapena. Erabakiak beraz, dimentsio sozial eta politikoa dauka.

Haurren parte hartze eskubidera ekarrita, haurrak ezin dute aginduen hartzaile eta betearazle pasibo soilak izaten jarraitu. Marko teoriko honetan aurrez azaldu den guztia sustatu ahal izateko, haurren komunikatzeko eskubidea eta gaitasuna aitortzea dagokigu.

Komunikazioaz ulertzen duguna definitzeak, zer nolako jendartea eraiki nahi dugun erabakitzearen zerikusi handia dauka beraz. Boteredunaren komunikazioak, komunikatzea informazioa transmititzera mugatzen duenak, botere harremanetan oinarrituta jendartea islatzen du; igorle gutxi batzuk hartzaileen gehiengoari inposatuz. Aldiz, komunikazio demokratikoak, elkar ulertu nahi duen jendartea islatzen du; komunitateko kide guztiak entzutearekin eta haien hitzarekiko aitortzan oinarritzen baita. Norabide anitzeko komunikazioak barnebiltzen dituen komunitate demokratikoa alegia.


BOTEREDUNEN KOMUNIKAZIOA	KOMUNIKAZIO DEMOKRATIKOA
Monologoa Boterea Goitik beherakoa Norantza bakarrekia Gutxiengoan kontzentratua	Elkarrizketa Komunitatea Horizontala Bi norantzatakoa eta parte hartzailea Gehiengoan zerbitzura

Haurrekin parte hartzea sustatzerakoan, komunikazioa gizabanako batek beste batekin lankidetzan sortzen duen prozesu moduan ulertzea proposatzen dugu. Ondorioz, komunikazioa ulertzeko modu honetan ez da informazioa (boterea) daukan igorle bat eta entzutera mugatzen den hartzaile bat egongo. Baizik eta, esperientziak, ezagutzak, sentimenduak... elkar-trukatzen eta partekatzen dituzten giza komunitateak egongo dira. Elkar-truke honek ahalbideratuko duelako heldu/haurren arteko harremana/binkulua eraikitze; banakakotik talde izatera pasatzea.

*“Komunikazioa erabateko elkarrekotasun egoeran solaskideen arteko mezuak igortzean/jasotzean datzan giza harremana da.”*

*Antoni Pasquali*

Komunikazio prozesuak, denei txandaka igorle eta hartzaile izateko aukera eman behar die. Igorle/hartzaile binomiotik, EMIREC kontzeptira jauzi eginez. Cloutierrek proposatzen duen EMIREC (Emisor+Receptor) kontzeptua eta komunikazio demokratiko batean, parte hartzaile guztiak EMIREC moduan kontsideratzea proposatzen du. Pertsona bakoitzak bi funtzioetarako gaitasuna eta ahalmena duelako, eta komunikazio prozesuan parte hartzeko eskubidea duelako, igorle eta hartzaile gisa, aldi berean. Freirek esango lukeen moduan, “ irakasle eta ikasle gehiago ez, eta irakasle-ikasle eta ikasle-irakasle gehiago”. Igorle hartzaile gutxiago eta EMIREC gehiago: ez hitzun eta entzule, solaskideak baizik.



Gure buruari galde diezaiozun, gure komunikatzeko moduak desbedinen arteko elkarrizketa sortzeko balio al duen. Zer egin, aldatu genezakeen solasa sustatzeko. Nola parte har dezaketen elkarrizketa honetan, komunikazioaren parte diren guztiek.

Haurren parte hartzera ekarrita komunikazio demokratikoaren ideia hau, haurren komunikatzeko gaitasunean jarri nahi genuke arreta. Malaguzziren aurrez aipaturiko poeman oinarrituta, hurrekin komunikazioa hitzezko komunikaziotik haratago eramatera gonbidatu nahi zaituztegu.

*“Hurrek ehun lengoia dituzte, ehun esku, ehun pentsamendu. Pentsatzeko, jolasteko eta hitz egiteko ehun modu, harritzeko eta maitatzeko ehun modu, abesteko ehun alaitasun. Ehun mundu ulertzeko, aurkitzeko, irudikatzeko, ehun mundu amesteko”*

Ondorioz, erabil ditzagun lengoia ezberdinak hurrekin komunikatzerakoan. Hitzezko komunikazioaz haratago, gorputz komunikazioa, antzerkia, rol jolasak, eraikuntzak, marrazkiak... sor dezagun haur talde bakoitzarekin komunikatzeko geure lengoia propioa.